

MAMU ALA ARBASO



JOSEBE BLANCO ALVAREZ

Trantsiziorako hila da otsaila. Otsaila txikia izateak lehenago bukatuko den esperantzan bizitzeko aukera ematen du. Une askotan, nostalgiaz begiratzen diot urtarilean zehar bizitako erditze garaia-ri: zergatik ezin da hura luzatu? Beste askotan, erritmo errepikakor eta eza-gunaren grinak martxoarekin jartzen nau ametsetan: zergatik ezin honen gainetik jauzi egin?

Eta ez, ezin dut hemendik ihes egin. Artzainak esaten zuen, bai, otsaila txikia da, baina inork ez du asmatu paretik kentzen! Ezin dut ezikusiarena egin, beraz. Nolatan, bada, muturren aurrean baditut otsaileko aldaketak?

Otsailaren 2an hasi ginen hiltegi-joaten, eta harrezkero, astero-astero joaten gara Zubillagako hiltegi publikora arku-meak eramatera eta jasotzera. Horrek dakar ondorengo antolaketa guztia: kutxa isotermaak banaketa behar bezala egiteko, lekuz leku eta pertsonaz pertsona. Erlojuaren kontrako lasterketa horretan, guztion pazientzia ezinbestekoa da, ibilbidea ongi bukatzekotan: arkumeentzat, hiltegi-ko langileentzat, niretzat, erosleentzat.

Otsailaren 2tik aurrera, arkumeak desagertu diren heinean, hazten joan da esne litro kopurua. Arkumerik gabeko lehenengo lau ardi haiei beste 26 batu zaizkie. Horrek, maiz belarritik tiraka, eraman gaitu gaztandegira: hura margotu, egokitu, garbitu, gatzagia erosi eta hartzigarrien kopuruak begiratu, falta denaren eskaera bideratu... Gazura martxan jarri, gazta-ganbara hustu, errebisioa egin, garbitu... Oraindik eskuz jezten ari bagara ere, aurre hartu behar zaio martxoari, eta artegitik gaztandegira dagoen bidea ere aktibatu behar,

noski: jezteko makinaren eta hotz-tangaren funtzionamendu egokia egiaztatu... dena, arroz-esnez gainezka egiten dugunerako. Dena, gazta egiten hasteko. Eta, hala ere, gazta egiteko lehen eguna heltzen da eta beti-beti dago egiteke gelditu den zer edo zer, harri kokorra oinetakoan bezala.

Bitarte horretan ardi-lanek jarraitzen dute. Goizez eta iluntzez udako belar ondua eta zerealak eman; eguerdietan, Antoniori orain dela bi urte erositako alpapa banatu. Erditzeek jarraitzen dute, nahiz eta tantaka izan. Edaten asmatzen ez duen arkumeren bat gehitzen zaie biberoia hartu behar dutenei –bikote direlako eta amak nahiko esne ez, amak maite ez duelako edo amarik ez duelako...–.

Trantsizio garai honetan, egitera heltzen ez zaren horiek direla eta, makina bat aldiz eskatu behar izaten da barkamena. Zenbat mezu erantzuteke, zenbat dei egiteke... Eta bueltako horietan, behin eta berriz errepikatzen den sintagma da “trantsizio garaian gaude, gainezka egin dugu, ez gara denera heltzen, barkatu”. Egunak beste ordubete bat balu... Baina ez, ez du, eta hobeto, bestela, hori ere lanean pasako baikenuke.

Zorionez, trantsizio garai hau eskerrak emateko garaia ere bada. Horrelako prozesuetan jasotako laguntzak gorputz eta burua berrindartzen dituelako. Esaterako, gaztandegia konpainian –are gehiago, konpainia onean– garbitzeak zama arintzen du. Ez bakarrik lana azkarrago egiten delako, baizik eta, zurrunbiloaren erdian, esku pare batek heltzen zaituelako, goxo, eror ez zaitezen, lanaren pisuaren pisuz, eta esperantzaz hitz egiten dizulako.

Eta horrela, egunetako eta asteetako horiek guztiak erretroisoreko ispiluan

gelditzen diren neurri berean, hurbilago dago martxoak irekiko dizun leihoa. Ames-tutako monotonia berrian etzatear zaude: egunean bitan ardiei jana eman, goizetan larre berpiztuetara atera, egunean bitan jetzi, bi egunean behin gazta egin, gazta-ganbaran daudenak biratu... Horrela, San Ferminak arte.

Itolarri horretan, behin baino gehiagotan eskertu dut eskarmentuak aurreikuspenaz jokatzeko aukera ematea. Zer litzateke trantsizioa, bada, eskarmenturik gabe? Esperpentoa.

Gogoetak, nahi gabe, ihes egin du etxe honetatik, eta marko orokorragoan jarri nau: trantsizio ekosoziala deitzen den horretan. Trantsizioan ari al gara?

Zenbaitetan, kosta egiten zait trantsizioa irudikatzea. Badira aldaketak, bai, baina hor gaude kateatuta; adibidez, gobernuek aireportuak handitzeko egiten duten borroka; sindikatu batek, lanpostuak mantentzeko aitzakian, automobilgintza enpresari gerrarako tanketak egiteko eskaera; nekazaritza- eta abeltzaintza- dirulaguntzetan aplikatzen diren irizpideak; hegazkina hartzeko dagoen grina; petrolioz egindako trepetekiko menpekotasuna...

Eta ez da izango historikorik ez dugu-lako. Ez da izango eskarmenturik ez dugulako. Agian, datorkigun martxo horren monotonian bizitzen ez asmatzeari beldur diogulako. Edo urtarilaren lozorro ezagunaren epeltasunak martxo posiblea ikusten uzten ez digulako. Agian. Baina martxo helduko da. Ziur. Otsail txiki betean gauden bezain ziur.

Eta María Sánchezen poemako galdera datorkit: zer izan nahi dugu, mamu ala arbaso? ●



A ZE FAUNA!

BASOKO GORDELEKUTIK,
LONDRESKO
ELEKTRIZISTA LANETARAIRATI DIEZ VIRTO
ARANZADIKO KIDEA

Ipurditik kiratsa ateratzeko gai den animaliarik ezagutzen ote dugun gal-detuko baligute, agian burutik lehena pasako litzaigukeen animalia mofeta izango litzateke. Alor askotan pasa zaigu azken urteetan, telebistan eta komunikabideetan ikusten ditugunak gehiago eza-gutzen ditugula inguruan ditugunak baino. Ez da mofeta ipurdi kirastuna duen animalia bakarra; asko dira baliabide hori ustiatzen dutenak, baina batek bereziki, izena eta guzti hartu du: ipurtatsa.

Ipurtatsa gure lurraldean bizi diren berderatzi mustelido espezieetako bat da, bisoiaren eta leporariaren tankerakoa, besteak beste. Tamaina ertaineko ugaztuna da (40 bat cm-ko luzera du), gorputzeko ilajea arre iluna du, eta mutur zein begiak ile zuriz inguratuta ditu, maskara bat jantzita izango balu bezala. Haren izena nahiko argitzailea da, baina mustelido guztiek dituzte usain-guruinak uzkie. Izatez, ugaztun guztiok dauzkagu, eboluzioz errudimen-

tario bihurtu bazaizkigu ere. Zertarako? Mustelidoetan, gehienbat ugalketa garaian elkar identifikatzeko balio du usainak eta baita eremua markatzeko ere.

Ipurtatsa Euskal Herri osoan dago zabaldua, baita Europan ere. Ez da habitata oso zehatzetan bizi den animalia; ur iturri bat gertu izatea gustuko du, baina, horretaz gain, babesleku apropos bat eta elikagaia topatu ditzakeen ia edozein eremu naturaletan aurki daiteke, altitude handian ez badago behintzat. Jaterako garaian ere ez da erretxina; haragijalea da, eta mikrougaztunak eta anfibioak ehizatzen ditu gehienbat. Azken horiek gordelekuan pilatu ohi ditu elikagai erreserba modura.

Espezie honetako indibiduoetatik eratorritako animalia etxekotua ipurtatsa bera baino ezagunagoa dugu seguraski. Uste da hudoa (*Mustela putorius furo*) Europako ipurtatsetatik etxekotu zela duela 2.500 bat urte, baina data ez dago

oso argi. Adituek diote egiptoarretatik jaso zutela europarrek ipurtatsa etxekotzearen ideia, han katu etxekotuak ikusi zituztenean. Egiptoarrek hazien gordailuak karraskarietatik babesteko erabiltzen zituzten katuak, eta europarrek hori ikusita, inguruan zuten ehiztari habil batekin gauza bera egitea erabaki zezaketen. Mendeetan zehar untxien eta antzekoen ehizan ere erabili izan dira hudoak, haien gorputz luze eta finak erraz asko sartzen baitira edozein gordelekutan.

Gaur egun, ordea, hudo gehienak maskota bezala izaten ditu jendeak eta, bitxiki, animalia horiek erabili izan dira hodi luzeetan zehar kableak eramateko. Hala erabili zituzten NASaren Jet Propulsion Laboratoryn, eta Ingalaterrako Karlosen eta Diana Spencerren ezkontzan, telebista eta soinu kableak hudoek instalatu zituzten. Etxekotua zein basatia, biak ala biak, animalia azkar, arin eta ehiztari trebeak dira, kiratsak alde batera utzita. ●

IPURTATSA

*Mustela putorius***TALDEA:** Ornoduna / Ugaztuna.**NEURRIA:** 38-42 cm-ko gorputza, 15 bat cm-ko isatsa eta 8-13 g-ko pisua (emeak txikiagoak izaten dira arrak baino).**NON BIZI DA?** Habitat oso ezberdinetan: baso hostoerorkorretan, pinudietan, sastrakadietan edo soroetan.**ZER JATEN DU?** Haragijalea da, eta mikrougaztunak eta anfibioak ehizatzen ditu gehienbat, baina dieta anitza izan dezake urtaroren eta habitataren arabera.**BITXIKERIA:** Usain-guruin gehienak lepo eta buru inguruan dituzte eta, izatez, usain gehiena bertatik jariatzen dute.**BABES MAILA:** EAEko eta Nafarroako katalogoetan "Interes Berezik" izendatua.

DENAK EZ DITUGU LAGUN



Zume negartia etxe aurrean.



JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

Udaberria badoa. Lotsagabe xamarra dela pentsa dezakezu; izan ere, egiten diogun kasu eskasagatik, aspaldi erabaki zuen ez gintuela gehiago agurtuko, ez etortzen denean, ezta alde egiterakoan ere. Merezia dugula dio Goikoetxeko Joxepak, "ondo merezia", azkentzen du.

Egun hauek, argia luzatuta eta lurraren tenperaturak gora eginda, negua igarotzeko hostaiari eusteko hautua egiten duten landareak landatu edo birlandatzeko egunak dira. Azkar ibili, beranduenera apirilean egin lan hori. Salbuespenezkoak dira palmondoak; berozaleetan berozaleenak maiatzean landatzen dira, lurak ondo hartzeko.

Izango da baten bat hostoa galtzen dutenak landatzeko ederlana atzera gelditu zaiona edo utzi duena, eta oraintxe muturka eta presaka dabilena landarea eskuratu, zuloak egin edo lotzeko hesolen bila.

Itsumustuan ibili beharrean, itsutu behintzat ez egin. Ondo hautatu jarri nahi duzun landarea. Zuhaitzez eta arbolez ari bazara ondo aldebanatu lagunak eta etsaiak, pertsonekin bezalaxe. Hona etxe-

tik hurbil jarriko ez nituzkeen batzuk, edo, jartzekotan, ondroso ibili tarte erabakitzerakoan.

Zume negartia (*Salix babylonica*): bai, "sahats negartia" esaten diote askok, egarriak bizi duen arbola da. Kontuz. Uraren tutuak topatzeko usaimen berezia du. Behin aurkituta, akabo! Sartuko da urari aurrea hartu nahian eta sustraiz bete eta lehertuko dizkizu.

Makala (*Populus nigra*): hogei urteko gaxtea, 30 metro garai egin daiteke. Horretarako ur emari agorrezina behar du eta zume negartiak bezala sudur berezia du sustraietan. Bide, terraza, zutabe... denak airean hartuko ditu.

Platanoa (*Platanus x hispanica*) eta harritza ere (*Quercus robur*) urzaleak dira, eta, zumeak eta makalak bezala tutuetarako grina hori ez badute ere, egarria asetzeko, lurak lehertu eta uzkuritu egin ditzakete, eta eraikuntzen zimenduak, euskarriak eta irozgarriak desegonkortu.

Pikondoak (*Ficus carica*) eta aranondo handiak (*Prunus domestica*) hezetasuna lardaskatu eta itxulasten dute; tartean, hodi, hustubide, erreka estali, lur azaleko putzu eta abar. Ez harritu bere inguruan buxadura arraroak, urasetze errepikakorrak eta abar pairatzen badituzu.

Burutapen xelebreak direla tarteko: sasiakazia (*Robinia pseudoacacia*) erraz hautsi eta erortzen delako; indi gaztainon-



egonarrria

Emakume baserritarrak

EHNE Bizkaia sindikatuko hamar emakumeren testigantza jaso du Maribi Ugarteburuk Erein, borrokatu, bizi liburuan eta Feli Madariagarena jaso du Onintza Enbeitak Bizitza baten txatalak liburuan. Biak kaleratu dira ikasturte honetan. Egonarrrian mintzatu dira emakume horiek lurrarekin duten harremanaz, haien gorputzak zenbat zapalkuntzek zeharkatu dituzten, ez kasualitatez emakumeek eredu txikiko laborantza egin izan dutela, eta feminismoak landa eremuarekin duen erronkaz, besteak beste.

Ikusi:

www.argia.eus/multimedia/egonarrria

doa (*Aesculus hippocastanum*) jan ezinezko gaztainak enbarazu eta traba besterik ez dutelako sortzen –teiltueta, adibidez– eta adar jende oso hauskorra duelako; magnolia lore handiaren (*Magnolia grandiflora*) hosto gogorrek ere berdin; urkiak (*Betula spp.*) eta Txinako udareondoak (*Pyrus calleryana*) eramanezina den polen laino handiak sortzen dituztelako, eta leihoak itxita egon beharko duzulako udaberriaren mokoan. Eta abar.

Hautatzerakoan dena izan kontuan. Edo bat bera ere ez. Izan ere, drama gutxi. Drama behar da, jakina. Drama edertasuna ere bada. Zertarako, bestela, Yon Etxaide Itharteren *Amaiur*, Shakespeareren *Hamlet* eta *Julietta eta Romeo*, edo Jon Miranderen *Haur besoetakoa*, edo Picassoren *Gernika*? Landatzailea landatze ederlanera. ●

OIARTZUN BURUJABE

HARAGI-ZIRKUITU PROPIOA SORTZEKO PROIEKTUA MARTXAN



GARAZI ZABALETA
@TIRIKITRANN

Oiartzun Burujabe prozesuaren baitan, herriko haragi-zirkuitu propioa martxan jartzeko lanean aritu dira azken urteetan Elikadura Mahaitik. Labore Oarsoko ki-deek, herriko ekoizleek eta udal eta landa garapenerako elkarteko ordezkariak osatzen dute mahaia, baina batzar irekiak ere egiten dituzte, eta horietako batean proposatu zuten abeltzainek ideia. “Kezkatuta zeuden sektorean segidarik ez dagoelako, eta egoera aztertzen hasi ginenean ikusi genuen herriko baliabideak erabilia hemen hazitako animaliak tratantei saltzea eta kanpora bidaltzea zela ohiko praktika”, adierazi du Itsaso Larretxea Alvarez Labore Oarsoko kudeatzaileak.

ABELTZAINEKIN JOKO ARAUAK ADOSTEN

Abeltzainen kezkak Labore Oarsoko helburuekin –gertutik elikatzea, ekoizle txikiak eta lehen sektorea bultzatzea eta lanbidea duintzea, besteak beste– gurtzatzen zirela ikusita, proba pilotua abiatzea erabaki zuten. “Abeltzainekin joko arauak adosten aritu gara, Laboretik haragi hori merkaturatzeko baldintzak

zehazten eta ardurak banatzen”, dio Larretxeak. Oiartzungo haragia sartuko da proiektuan, pentsu eta elikadura ekologikoarekin eta hormona, transgeniko eta botikarik gabe hazitako aziendena. Animaliei tratatu ona ematea ere adostu dute irizpideetan.

Herriko abeltzain gehienak ez dira profesionalak eta askori errespetua ematen zien etxerako egitetik saltzera ere pasatzea. “Denon artean aritu gara planteamendua adosten, abeltzaintzat eroso izanen den jokalekua sortzen eta haien kezkak kontuan izan ditugu”. Horrela, erabaki dute abeltzainek hazi eta gizendutako aziendak Labore Oarsori salduko dizkiotela, eta hauek arduratuko dira hiltzeaz, eraldaketaz eta merkaturatzeaz. “Martxoaren 11n jasoko ditugu lehenengo haragi-loteak, eta hemengo bazkideek eskuratzeko aukera izanen dute, baina gerora bazkide ez diren herritarrei ere zabalduko zaie”. Oraingoa abeltzain batekin egiten ari diren proba pilotua da, eta behin emaitzak eta datu ekonomikoak eskutan dituztenean, herriko gainerako abeltzainei aurkeztuko dizkiete, gehiago zabaltzeko. “Hainbat abeltzainek adierazi dute interesa”, dio.



LOTEAK ENKARGUZ

Momentuz txahal haragiarekin ari dira probak egiten, baina aurrera begira beste haragi batzuk ere egitasmoan sartzea nahi lukete. Haragi-loteak freskoan salduko dituzte, enkargu bidez, baina beste batzuk izoztuta ere salduko dituzte dendan. “Egoera prekarioan eta desbalorizatuta egon den sektorea da abeltzaintza eta etsipena nagusitu da, baina sinetsita gaude horrelako proiektuak elkarlanean sortuta, egitura kolektiboak bultzatuta eta abeltzainak ere subjektu aktibo bihurtuta, lana duindu daitekeela”. Baina horretarako ezinbestekoa izanen da herritarren kontsumo ohiturak aldatzea eta prezioetik harago, erosketekin bultzatu nahi denaren gaineko kontzientzia hartzea. ●



ATXEGA JAUREGIA JATETXEA

EGUNEKO ETA ASTEBURUKO MENU BEREZIAK
EKITALDIAK, OSPAIZUNAK, FAMILIA TOPAKETAK...

USURBIL • 943 37 11 50 • www.atxegajauregia.com